

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sotera Zubiaurre Garitaonaindia

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1908-2004)*

Aurkibidea



Biografia



1909an jaio zen Elgoibarko Usetxe baserrian. Gurasoak eta zortzi anai-arreba bizi ziren bertan, eta bera zazpigarrena dugu. Ama Ermukoa zen, Berdengilokoa; aita, berriz, elgoibartarra. Bost urterekin hasi zen eskolan Maalako Ospitalean, eta han jardun zuen 13 urtera arte. Hango abesbatzan ibili zen eta Orfeoirako probak egiteko ere deitu zioten. 25 urterekin Prudencio Iribarrenekin ezkondu zen. Ezkontza uztailaren 5ean izan zen, eta egun haietan Iruñeko San Ferminak zirenez, eztei-bidaia haranzko bidean hasi zuten. Baina lasaitasun gutxiegi aurkitu zuten han, azkenean Bartzelona eta Madril bisitatzera joan ziren.

Zintak

EGB-013

- **Proiektua:** Elgoibartarren esanetan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi
- **Data:** 2002-03-11
- **Iraupena:** 142 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu - Elgoibarko Udala - Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. 1909an jaioa Elgoibarko Usetxe baserrian

- **Erref:** EGB-013/001
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1909. urtean jaio zen Usetxe baserrian eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. 25 urterekin ezkondu zen Elgoibarko Prudencio Iribarrenekin.

Transkripzioa

- Usetxe baserrixan?
- Abrillan hogeta bixan.
- Milla bederatzirehun ta zortzigarren urtian, ezta?

- Bedra... "en mil novecientos nueve creo que nací".
- "Mil novecientos nueve".
- Bai, bai.
- "Mil novecientos nueve"?
- "Nueve, creo".
- Eta baserrixan jaixo ziñan?
- Usetxen, bai. Usetxen.
- Eta gero bizi osua hantxe eman zendun?
- Hantxe bizi osua, ezkondu artian hantxe.
- A, eta zenbatgarren urtian ezkondu ziñan?
- Hogeta bost urtekin.
- Hogeta bost urterekin ezkondu ziñan. Elgoibartarra zan senarra ere?
- Baitta.
- Zela zakan izena?
- Prudencio.
- Prudencio.
- Prudencio Iribarren.
- Iribarren.

2. Etxera bidean zuen ingurua

- **Erref:** EGB-013/002
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Maalatik Toletxe gainera igotzen zen Soteraren etxera joateko. Mojen komentua zegoen eta bidean zuhaitz ugari baserriraino. Mojekin gertatutako pasadizo bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Zuretzako, bueno, zure kalia zelakua zan gerra aurretikan?
- Gerra aurretikan, ba, gure kalia kalia ez zan, basarrixa zan ta. Ixotzen... Maalatikan ixotzen zan Toletxegaiña esaten zitzakon. Oin bezela dana etxiak dia harek. Alde batian, Ormetxe zauan, moja frantsesen zera... konbetua. Bai, etxe haundixa Ormetxe. Eta han hori dana [lagun-lagun] ta horrek danok arbolak zian horrek, txopu haundi horrek, arbolak, Maalan hasi ta Toletxeraiño. Toletxeko basarrixa zauan eta haraiño dana arbola haundixak kerizpia [eitten], ta mojak han. Mojak frantsesak zian mojak, e! Frantsesak. Nere aizta behin gure e... —bai ba, soruak geunkazen, Olaitza esaten zitzakon, oin dana San Roke baillia da haura eta—... hara zixen atxurrakin. Eta moja, mojak-edo ortu haundixak zeukazen, bai, ba, terreno haundixak Maalaraiño esaten dizut, Toletxeraiñuak zian eurena ta. Esan zion eze, atxurrakin ikusi zaban ta esan zion eze: "Canta [...] hija mia, canta [...] [zurcir, zurcir]" esan zion mojiak.

3. Etxetik gertueneko dendak

- **Erref:** EGB-013/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Lehenengo denda eta estankoa aipatzen ditu. Teodosiaren denda zen gertuenekoa eta kokapena azaltzen du.

4. Maalako jaiak

- **Erref:** EGB-013/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Madalena festak izaten ziren auzoan eta erromeria egiten zen. Jende ugari biltzen zen, batez ere Txarriduna taberna zabaldu zenean. Meza nagusia egiten zen Maalan.

Transkripzioa

Santa Maria Magdalenan egiten zan fiestia, ta orduan, bueno, guretzako, Santa Maria Magdalena bizpera, kanpaiak, elizia, orduan hori izaten zan gure fiestia, erromerixa pixkat izaten zan, erromerixa ere bai izaten zan, baiña neuk sasoi ederra, ta orduan, dana ona. Gero, Txarridunanekeo tabernia sortu zanian, harek Santik, oso abilla zan haura bere parterako, ofiziorako, tabernia zeukan ta. Ta harek organizatzen zittuan jaixak, bueno, ta egoten zan Maala beteta toperaiñuan, toperaiñuan, mezia ere egoten zan, meza nagusixa, eta inportantzia haundixa ipiñi zion Maalari, gabian, gero erromerixa izaten zan. Behiñ ordu batera ezkeru, amaittu egiten zan Maalan, ta ixotzen zaben Toletxegaiña, ba haraxe, erromerixa, haraxe ixotzen zaben, ta hantxe soiñuakin. Aguro amaitzen zan, oiñ bezela amaierarik ba(g)eko gauak ez ziran izaten baiña azkena haraxe.

5. Erromeria Toletxe gainean

- **Erref:** EGB-013/005
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:37

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Lehengo Elgoibarko Madalena jaiak nahiago zituen. Gauean erromeria izaten zen Toletxe gainean eta garaiz amaitzen zen. Ama ez zen erromeriara joaten 8 seme-alabak zaintzen egoten baitzen; ama erromeriara joatea gustatzen zitzaion Soterari.

6. Ama Ermukoa eta aita Elgoibarkoa

- **Erref:** EGB-013/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:10:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Ermukoa eta aita Elgoibarkoa zituen. Aita soldadu Madrilen egon zen; aitaren inguruko kontuak kontatzen ditu. Aitonaren inguruko kontuak.

7. Aita San Pedroko lantegian eta ama etxean lanean

- **Erref:** EGB-013/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:13:09

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita San Pedroko lantegiko enkargatua zen eta ama etxekoandrea, baserrian lan egiten zuen. Neskak ez ziren kanpora ateratzen lanera, arreba bakarria atera zen josten ikastera kanpora. 4 mutil eta 4 neska ziren.

8. 5 urterekin hasi eta 13ra Maalako eskolara

- **Erref:** EGB-013/014
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:19:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

5 urterekin hasi eta 13ra arte joan zen eskolara. Kaletar eta baserritarrak batera joaten ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Elgoibarren bi eskola zeuden. Anai-arreben eskolaz hitz egiten du.

9. Euskaraz hitz egitea debekatua

- **Erref:** EGB-013/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:00

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskaraz hitz egitea debekatua zuten, eta erdara hutsean ikasten zuten. Lagun artean ere erdaraz gehiago egiten zuten. Maistra, moja azpeitiarra zuen.</p>

10. Goizez eskola eta arratsaldezk eskulanak

- **Erref:** EGB-013/017
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:26:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Umetan denak batera eta gerora neska eta mutilak bananduta ibiltzen ziren eskolan. Eskulanak egiten zituzten arratsaldeetan, josten aritzen ziren. Oporrak gaur bezala izaten zituzten. Zigorrik ez zuten izaten. Umetako pasadizoak kontatzen ditu. Irakurri eta idaztea gustuko zituen Soterak, mojei irakurtzen zien bazkaldu bitartean.

Transkripzioa

Ze ospitalian beti, hamahiru urte edo holaxe, behiñ gora ezkerro, neskak bakarrikan. Behian, bai, eskola txikixan mutil ta neska. Orduan, tablia, tablia danak jaikitzen giñan ta eskolia ba, bankuak hor hasi ta honaiño, bueltan, "dos por uno es dos, dos por dos es cuatro", bueltan kantatzen genduan tablia amaittu artian, banan-banan. Goizian estudixua izaten zan eta arratsaldian esku-lanak.

(...)

Monjeri leetzen niuen, ba eurak bazkaltzen ezta! ta bentana txiki bat halakua zauken, holakotxia, ta ni han, harek bazkaltzen, ta ni "la vida de los santos, hoy de uno, mañana de otro", illeria bueno, ebanjeliua irakurtzen niuen nik haura ordubete edo, ez dakitt, ordubete ez, hiru ordu laurden edo zenbat izango zan ba jarixo hori, amaittu artian. Behiñ mariatu egiñ nitzan, makaldu edo ez dakitt nik, ta hamaikak, debilidadia ere, hazten nenguan orduan, ta mariatu egiñ nitzan, gero, harrezkerro hamarretakua ematen zien beti. Urte bi inguruan leetu niuen nik harek bazkaltzen zauden artian.

11. Hilean bi pezeta eskolara joateagatik

- **Erref:** EGB-013/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:29:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako liburuak erosi eta hilean bi pezeta ordaintzen zuten eskolara joateagatik. Ikasgai ezberdinak aipatzen ditu, marrazketa zuen gustukoen.

Transkripzioa

Nik, dibujua gustau egitten zitzatan asko ta, halaxe ni examiñetan, ba, nere lamiñak han bistan, aingerua batian dibujua, ta gero bistak eta holakotxiak, eta neri asko gustatzen zitzatan. Dibujoko maixua ere joaten zan, orduan botikarixua, ta jueza, ta holakotxiak, abadia, parroquia ta horretzek ziran profesoriak, examiñatzera etortzen ziranak. Ta dibujoko maixuak nere dibujuak ikusi zittuanian aber joaten nitzan dibujora, ta ez, ez nitzala juten, ta lastimia dala ba. Pezeta bi pagatu bihar ziran, zortzi ume ziran, ta pezeta bi orduan asko ziran.

12. Txangoak Loiolara eta Zumaiara

- **Erref:** EGB-013/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:29:21. **Bukatu:** 00:32:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Eskolatik irteerak egiten zituzten eta Loiolara egindako irteeraren inguruko kontuak aipatzen ditu. Autobusa aldapan zihoanean jaitsi egin behar izaten ziren. Zumaiara joan zirenean gertatutako anekdota.

Transkripzioa

Loiolara joan giñan behiñ, behiñ edo birritan igual joango giñan, eta Silverion kotxia, Silverion kotxia, kaballoduna, eta Azkaratera aillegau giñanian, bajatu egiñ bihar, gu oiñez, ta kaballua. Gero, aldaparia pasatzen zanian, berriz, iepa! adelante, Loiolaraiñuan. Beste behiñ, Zumaiara joan giñan, ta Zumaian geuk eruaten genduan geure bazkarixa edo zana. Eta nik laga niuen, bai ba, plaia dago han ta, laga diogu bati zaintzen, ta nere bazkarixa txakurrak jan. Haura zaintzaille laga genduana ta ni bazkaririk ba(g)e. Mojiak eman zidan zedozer, eta behintzat, nere bazkarixa hor joan zan.

13. Neskak ez ziren tabernara sartzen

- **Erref:** EGB-013/021
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:36:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tabernara ez ziren sartzen, kafea hartzera joaten ziren plazara eta mahai guztietan ura eta limonada egoten zen jarrita. 3 txakur handi balio zuen gaseosa botilak. Musika egoten zen plazan eta dantzara joaten ziren. Auzoko lagunak elkartzen ziren; neskak neskekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

Tabernara sekula ere ez, kafia plazan hartu bai. Orduan egoten ziran botellak hau bezela, mahai guztietan, holakotxe mahai biribillak izaten ziran, ta mahai bakoitzian botella ura egoten zan, mahai bakoitzian eh! Hainbeste mahai, ta danetan. Bai, herriko plazan hori, eta hantxe jartzen giñan, Kas edo, Coca-Cola ez zan orduan, limonadia, eta ez dakitt, Kas generalian, holan kanikia "taka" bultza eginda, barruan sartzen zana.

Segun, dantzara ertetzen genduan ta mutillak ertetzen bazauden, dantzan egitten gustokuak, ba tira, "vamos", gero amaitzen zanian dantzia, ba hiru txakur haundi balio zittuan botella gasiosiak, ta "vamos a tomar un refresco", eta gustokoak baziran, "acepto", y si no eran, pues "no, no gracias", ta hala.

Hamabostian behiñ izaten zan eh! Ta Garizumia zanian zazpi aste musikarik ba(g)e. Pazkua etortzeko haura poza, ene!, oiñ bezala ez zaguan ta.

14. Bonbardaketan etxetik ihesi

- **Erref:** EGB-013/024
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:44:22

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Etxe inguruan sagardoa egiteko sagar-erbola ugari zituzten. Gerra garaian etxea eta ingurua suntsitu egin zituzten bonbardaketarekin . Soterak, haur txikia zuela, hura hartu eta etxetik ihes egin zuen; zulo batean ezkutatu behar izan zuen.</p>

Transkripzioa

Gero, bonbardeuak gerra denboran. Hamen, begira, hamen dago barandaua, tiestuak daude hamen, tiestuak lorekin, eta hamen barandauan jo zaban, ni joan nitzan... bonbardeua, gure... ibai aldera, honek ibaixa dauka atzian eta ibai aldera hasi ziran, txanalan onduan jauzi zan lelengua. Goazen hamendikan! Joan nitzan etxera, galtzerdirik ta orduan ezer, galtzerdixak janztera, galtzerdixak janzten, bata jantzitta ta bestia jantzi ba(g)e, etorri da beste kaiñonazo bat, ta hamentxe jo zuan eskillara honetan. Hau eskillari hau dana apurtu zan, eta nik erten nuan, ba, ahal zan moduan erten nuan sentidu nabanian, batian galtzerdixa eskuan, ta bestia jantzitta, ta joan giñan Melittongora, umia, umia neukan orduan, ume bat, lelengua, eta txikixa ondiokan, ta hartu umia ta Melittongo aldera. Melittongo aldera dagan, han trenbidepian zulo bat dago, behintzat, hantxe sartu giñan. Kaiñonazua etorri zanian, kristal hots bat bai, ta ni ezkonberrixa ondiokan, ta gauzak, bajillak eta kristalerixia eh! halako ederrak! Nere penia, ene! Danak apurtuko zittuan, ezin nitzan egon han, han sotano haretan ezin nitzan egon. Ni banixe, ni banixe, ze pasau da ta! Ez zaitte joan! ondiok ez debe amaittu ta, ez zaitte joan! Horregaitiokan, txiri-txiri, ixil ixilik, joan nitzan, ta ezer ez. Kanpoko kristalak bakarrik apurtu ziran baiña barrukuak oso osorikan, ezer ez zan apurtu. Nere poza! Nere poza!

15. Janzkeraz ezberdina astean eta jaiegunetan

- **Erref:** EGB-013/027
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:52:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Orduko janzkeraz hitz egiten du; soineko bat luzerako izaten zuten. Aitaren jakarekin, jostunak etxera etorri eta abrigoa egin zion Soterari 12 urte ingururekin. Igandeetan, dotoreago ibiltzen ziren. Arropa Elgoibarren erosten zuten. Anekdotak bat kontatzen du. Alpagatekin ibili ohi ziren.</p>

Transkripzioa

Aittan jakiakin egiñ zien. Jostuna etxera ekartzen zaban amak. Egun bi edo

egitten zittuan, lo ta danak hantxe egitten zittuan, badakizu, gurian asko egoten zan ta. Eta aittan jakiakin egiñ zidan abrigua, eukiko nittuan... tan tonta tampoco no sería porque ya tendría unos 12 años porque yo...", goguan daukat, banixen eskolara, eta ama portalera ertenda, begira neri. Estreiñeko, estreiñeko, aittan jakiakin, banixela, begiratten dot han ta... ama holan irribarriakin zagan neri barre egitten dalakoan, buelta atzera, ta abrigua kendu ta ez naban jantzi. Gero, harrezkero baiña, ez neukan besterikan ta jantzi, ta bai pozik ibilli ere, bai pozik ibilli ere.

Goguan daukat nik, gure ama beti tela onak egittekua zan, ta urtiak ere orduan aurrera zixezen, baiña sastia, tuertua esaten ziuen, zelan zaban? José uste dot, Zabala, uste dot. Eustakia zaban ama, ta ekarri zaban trajia etxera, anaixana. Aste Santua zan, ta orduan Aste Santurako ta holaxe egitten ziran trajiak, egun señalatua eta, ekarri zaban trajia ta gurian beti ohittura bezela, "pago al contado", pago 30 duro zan traje hori, telarik onena eh!, beti ona gure amak, telarik onena. Ta hartu zaban dirua eta joan zan etxera. Hemen dator berriz Eustakia ta... "yo sé que me habeís dado pero no he llevado dinero a casa", "¿que no ha llevado? pues ya sabes que te hemos dado, sí pues eso, pues no veo Farola hartu, farola kandelikiakin, eta "¿qué encontraís?" udia zan, udia, udaberrixa behintzat, eta "¿qué encontraís? edo ¿qué buscaís? lo que no encontramos", sekula ez jata ahaizten erantzuna.

16. Etxean dutxarik ez

- **Erref:** EGB-013/029
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:54:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean ez zuten dutxarik eta askan bainatzen ziren ur hotzetan. Ilea apaintzera ez ziren joaten, etxean moldatzen ziren.

Transkripzioa

Etxian, illia apaintzera orduan! Bi kopeta nik, ja! Bi kopeta nittuan, edarrak gaiñera, holaxe, harek orraztu, lotu, ta han ez zagan, eh! beti apainduta! ni apaintzera, estraiñeko, ezkontzeko joango nitzan, seguramente, "sí, yo para casar".

17. Erromeriak eta igandetako dantzaldiak

- **Erref:** EGB-013/031
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:56:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mutiletan igandeetan plazan eta erromerian egiten zuten. Festa garaiz bukatzen zen.

18. Gizona ezagutu zueneko

- **Erref:** EGB-013/032
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:59:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gizona Elgoibarren ezagutu zuen; Sotera baino 4 urte zaharragoa zen. Sotera mutiletan dezente egiten zuena zen; mutil politak asko izaten ziren. Nobiotan zuten intimitate bakarra etxerako bidea izaten zen.

19. Elgoibarko zinea parrokoaren kargu

- **Erref:** EGB-013/033
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:00:34

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Irakurtzea asko gustatzen zaio eta egunkaria irakurtzeko zaletasun handia du. Elgoibarren zine bakarra zegoen orduan eta parrokoak zuen hango kargua.

Transkripzioa

Nire denboran parrokuak euki zaban, Don Ceferino, denbora askuan ez dakitt. "Ya empezaron a protestarle y todo, porque cuando llegaba el beso, cortaba". Poltsia hartuta zera joaten zan gero, astero bai, baiña orduan zenbat egoten zan, nik goguan daukat, gure amak, igual bi jai illaran edo hiru igual ta, ah!, ernegatu egitten najonen neri honek jaixok esaten zaban, badakizu pagia eman bihar, duro bi izaten zan baiña harek hiru mutil zakazen, lau mutil, ta aber, guri ez zigun, guri txakur haundixa bakarrikan.

"La mano misteriosa" ta horrek ziran serietakuak bai, ta ene!, gaiñera zinia ez dakitt zazpiretan edo ze orduan. Goguan dakat nik, gure amak, afalduta nahi izaten zebe mutillak joan ta esklaba geratzen zan ama, arratsalde erdixan afarixa eman bihar.

20. Igandeetan lagunekin zinera

- **Erref:** EGB-013/035
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:01:08. **Bukatu:** 01:03:33

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zinera astero joaten ziren eta 3 txakur handi balio zituen. Lagunekin joaten zen mutil-laguna izan aurretik. Orduko pelikula batzuk aipatzen ditu. Igandeetan izaten zen zinea.

21. Berdura plazan antzerkia

- **Erref:** EGB-013/036
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:03:33. **Bukatu:** 01:05:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Kaminerokora erromeriara joaten ziren. "Sasikoipatsu" egunean bazkaria egiten zuten. Berdura plazan antzerkia egiten zen. `Erreguetan´ abestiaren hasiera abesten du.</p>

Transkripzioa

- Gero izeten zan Kamiñerokuan zauan erromerixia orduan.
-lgandetan ere izaten zan?
- Bai, bai.
- Igandero egoten zan Kamiñerokuan?
- Bai, soiñua egoten zan. Soiñua eta... orduan...
- Juten al ziñan hara ere?
- Honbre! Ai enee! Harek egunak! Gure jangoikua! Bueno! Orduan baitta... josten ikasten ere ibili nitzan, e! Eta eitten genduan, karnabaletan, "Jueves Gordo", "Sasikoipatsu" esaten giñon, eta "Sasikoipatsu" egunian jostunak danak -erretratuak ere badaukaraz nik, eta- han ipintzen zaben, bazkaixa enkargatzen genduan igual -Kamiñerokuan ere inda gaude-, ba, ipintzen genduan, bazkarixa eskatzen genduan. Angulak eta danak jaten genduzen orduan, oin baiño errezaio zian ta. Baiña orduan ere ordurako dirua zan! Ordurako dirua, oin bezela! Oin ere "mucho, pero... también ganamos mucho".
- Antzerkira juten ziñeten?
- Antzerkia zer da?
- Teatruak. Teatrua.
- A! Ein zaben teatrua batzuetan berdura plazan, bai, ein zaben, oso politta gaiñera ordurako, e! Geuretzako, ordurako.
- Eta gogoratzen al dozu?
- Bai: "Erreguetan ari nitzala eman dite albistia: ama zureak nahi ez duela biok elkarganatzia. Nola ez neukan, oraindiokan gauz hori erabakia, bertatikan asmoa hartu det konbentuan sartutzia". Gero mutillak... luzia da, e!

22. Orduko egunkari eta aldizkariak

- **Erref:** EGB-013/037
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:05:52. **Bukatu:** 01:08:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Antzerkia egin izan zuten berdura plazan. Antzerkia egin zutenak

25. Lehenbiziko irratia gerra-denboran entzun zuen

- **Erref:** EGB-013/041
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:11:14. **Bukatu:** 01:12:48

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Lehenengo aldiz irratia gerra-denboran ezagutu zuen. Gizona elektrizitatean lanean aritzen zen eta hark konpontzen zituen. Soteraren aitarekin batera lan egiten zuen gizonak.</p>

26. Etxetik kanpora gaztelaniaz

- **Erref:** EGB-013/042
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:12:48. **Bukatu:** 01:15:47

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen alde eta kontrako jendea zegoen Elgoibarren. Orduan euskararen alde gutxi egiten zen, etxean soilik hitz egiten zuen euskaraz. Batzokia zegoen Elgoibarren.

27. Aita kontsejupeko pilotari txapeldun

- **Erref:** EGB-013/043
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:15:47. **Bukatu:** 01:18:09

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Jokoak egiten zituzten lagunartean. Emakumezkoek ez zuten kirolik egiten eta ikustera ere ez ziren joaten. Bera etxean aritzen zen pilotan anai-arrebekin. Aita kontsejupeko pilotari irabazlea zen. Pilotari ezagunak izendatzen ditu. Txala jokoaren inguruko kontuak eta anaia txirrindulari ibili zenekoa.

28. Futbolera bidean Soteraren sagardotegira bazkaltzera

- **Erref:** EGB-013/044
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:18:09. **Bukatu:** 01:19:50

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Futbol partiduak ikustera noizean behin joaten zen. Sagardotegia zuten Soteraren etxezkoek eta jendea joaten zen futbola ikusteko aitzakian bidean bazkaltzera.

Transkripzioa

Gitxittan, guk sardandeixa geunkan, ta han geunkan bastante, nahikua lan, pentsatu ere ez. Ni ez nitzan sarri izango futbolian, ez, entzueria bai. Ta harek, ene!, orduan, esaten dizut, etortzen ziran, Eibartikan etortzen ziran, bi espezial egoten ziran Eibartikan, ta bueno, gure sardandeixa gelditzen zan topera. Haruzkuan ere sartu egitten ziran, honuzkuan merixendatzera. Haruzkuan etortzen zan, lehen uste dot esan dizutela uste dot, hasi egiñ naiz, interbentore bat. Haura etortzen zan, bazkaldu egingo zaban harek gurian seguro, fuentekada loiñia jaten zaban, eta gero, siestia, botella bat sagardauakin, gero siestia egitten, "no comerá más fresco ni el rey" esaten zaban. Gurian fresko egoten ziran, loiñak garbittu ta, gero ez zagan bestela astirikan garbitzeko ta. Baiña hari gustatzen zitzakon berak harrapatuta, ta berak harrapatzen zittuan askan, holan erreminttia zagan ta ra, ra... ateratzen zittuan ta. Bueno, zoragarrixa izaten zan partidua zaganian, haruzkuan zedozer baitta orduan ere asko bajatzen zan, baiña honuzkuan, bueno!, amaitzen zanian, etxeruzkuan, bueno, asko gelditzen ziran merixendetarako, beste batzuk edan ta juan egitten ziran.

29. Anaiak txori-ehizan

- **Erref:** EGB-013/045
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 01:19:50. **Bukatu:** 01:23:52

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ez zuen bizikletaz ibiltzen ikasi. Herri-kirolak ikustera baserritarrak joaten ziren eta ehizara etxeko mutilak. Anaien ehiza-kontuak kontatzen ditu.

30. Elgoibarko jaietako kontuak

- **Erref:** EGB-013/046
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:23:52. **Bukatu:** 01:26:17

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Elgoibarko jai onenak San Bartolomeak ziren Soterarentzat. Dantzarako desiratzen egoten ziren. Txiki eguna ez zen emakumezkoentzat izaten, sokamuturra egoten zen goizean eta hura ikustera joaten ziren. San Anton eguna eta inauteriak aipatzen ditu. Anekdotak bat kontatzen du "Mariaren alabak" kongregaziokoak zirenekoa.</p>

31. Otorduetako jakiak

- **Erref:** EGB-013/047
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:26:17. **Bukatu:** 01:28:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kafesnea gosaltzen zuten eta otorduetan baserriko jakiak jaten zituzten. Txerria hiltzen zuten etxean. Orduan ez zen urtebetetzerik ospatzen.

Transkripzioa

Goizian kafesnia eh! kafesnia, nik kafesnia, orduan ere kafesnia, gero eguardixan, ta, etxeko jenerua, edo babak edo berduria, edo frutia.

Txarrixa hiltzen zanian, odolostia, gaiñian berduriakin, gero urdaixa ere, txarri haundixa izaten zan ta, urte guztirako urdaixa ere, ta holan frijidu, erdi sikatu eginda, haura ogi bittartian estu-estu eginda, holan bai, baiña haura urdaixa, egosittako urdaixa, nik ez!

32. Elgoibarko medikuak

- **Erref:** EGB-013/049
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:29:20. **Bukatu:** 01:31:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Medikuak izendatzen ditu eta anekdota bat kontatzen du.

33. Igandero mezetara parrokiara

- **Erref:** EGB-013/052
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:32:53. **Bukatu:** 01:35:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Apaizak izendatzen ditu. Mezetara igandero joaten ziren 10etarako Parrokiara eta ondoren Maalara. Santa Klarako komentuaren aipamena egiten du.

34. Jaunartzea eta ezkontza

- **Erref:** EGB-013/053
- **Iraupena:** 0:05:26. **Hasi:** 01:35:21. **Bukatu:** 01:40:47

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Jaunartze egunean ospitalean gosaria izaten zuten, baina ez zuten ospakizun handirik egiten. 11 urterekin egin zuen jaunartzea Ospitalean mojekin. Parrokian ezkondu eta San Migelen egin zuten bazkaria. Ezkonbidaia era trenez Iruñe;era joan ziren eta handik Bartzelona eta Madrilera bi astez.</p>

Transkripzioa

Oiñ bezela, banketiak eta, etxian ere ez giñun igarri. Guk jaunartze egunian, ba, ospitalian geunkan goizian, jaunartze ostian armuzua, txokolatia, ta guretako hauraxe pozgarrixa. Bestela, etxian ezta igarri ere,

nahikua zan amak preparatzia soiñekua ta bestelako bat, bazkarixa korriente, gurian behintzat, hamaikakin orduan egitten genduan.

(...)

Ba ezkondu ta bazkaldu, ba guk erten genduan ba trenak hartzen zigun lekura, gero joan giñan handikan Pamplonako jaixak ziran, San Fermiñak, eta orduan, ba, Pamplonara joan giñan. Bertan, iluntzian, "ya" Pamplonan, hartuta geunkan hotela, ta eziñ egon, ez genduan lorik egiñ, ta bueno, "ni pensar". Handikan, Bartzelonara joan giñan, gau bat egingo genduan, eta gero, joan giñan Bartzelonara. Joan giñan ustian, lehenengo egitteko zeretikan Madridera, gero ez dakitt, behintzat Canariasera joateko ustian, kilometrikua atera genduan, biaje haundixa geunkan, eta bero batzuek, bueno!

35. Gabonetan familia bilduta

- **Erref:** EGB-013/054
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:40:47. **Bukatu:** 01:41:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gabonetan txerria hiltzen zuten etxean eta familia osoa elkartzen zen.

Transkripzioa

Gabonak, txarrixa hiltzen zan, ze poz! ze poz!, gabonetan, ene! Hutsa izaten zan gure extraordinarixua, txarrixa hiltzen zaben ta, txarrixa, arraiñik eta pentsatu ere ez, bixiguak eta orduan oiñ baiño ugarixago egongo ziran, baiña ez zagan, txarrixa, hildako jeneruak bai, txarranka sopia ta horrek izaten ziran gure, ba, gero solomua ta konpotia, turroia ta, nik turroia, estraiñeko jan naban ba ez dakitt zenbat urtekin. Igual, hamalau urte edo gehixago edukiko nittuan, estraiñeko turroia probatu nabanian.

36. Aita Agirre obispoa etorri zenekoa

- **Erref:** EGB-013/058
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:44:50. **Bukatu:** 01:47:07

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Nazionalistak aipatzen ditu. Elgoibarrera Aita Agirre obispoa joan zenekoa. Orduan abestutako kanta bat kantatzen du.

Transkripzioa

Behiñ etorri zan obispua, Txinan edo ez dakitt nun zagan, eta Elgoibarko semia, San Bartolome kalian jaixotakuak, bai San Bartolomen jaio zan, han etorri zan Elgoibarrera ta egiñ ziu en eh! Eskolara ere etorri zan.

Kantua ondiok goguan daukat nik: "bienvenido padre amado, gracias mil prelado egregio, ¡qué bueno! ya he tenido pero, dar la vida es de... nuestro corazón se alegra, nuestras manos baten palmas, y gracias a nuestras almas cantan himnos en tu honor. A Jesus por vos pedimos os de larga y santa vida llena de dicha cumplida y ventura sin igual. El colegio está de fiesta, y por jubilosa clama, a un prelado en que os ama con cariño paternal. Bienvenido padre amado, gracias mil prelado egregio", "¡hay que cantar!, eso cantarí con 12 años".

37. Sagardotegia etxean

- **Erref:** EGB-013/059
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 01:47:07. **Bukatu:** 01:52:08

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Baserriaren egitura azaltzen du. Usetxe azpian sagardotegia izan zuten garai batean. Elgoibarren bazen beste sagardotegi bat. Sagarra erosi egiten zuten Soteraren etxean eta dolarean egiten zuten sagardoa. Arratsaldean joaten zen jende gehiena eta tortilla eta arraina jaten zuten. Barrika zabaltzen Sotera ibiltzen zen.

Transkripzioa

Goizian ere, jende asko etortzen zan botelliakin sagardao billa, zenbat irtetzen zan! Hiru txakur haundi edo izango zan, nik ez dakat goguan eh! Oñ baiño sagardau ederrauak ai! Oingo sagardaua, binagria dirudixe horrek, harek ez diraz sagardauak, eta koloria, ura, ura. Gurian hori-horixa; eitten zebeu tolaría geunkan ta gero prensia, behian ertetzen zaban, bete, barrikak bete ta harek fermentatu egitten zaban, irakiñ egitten zaban. Gaiñera botatzen zabanian, gero zenbat gradu ko ta, zortzi gradu daukaz, ta nik horrek goguan daukadaz ondiokan.

Bazkaltzera? generalian arratsaldian izaten zan jendia. Goizian, ba, jendia zatorrena, ba, etortzen ziran banaka goizian ere, baiña arratsaldian, arratsaldian, jendia. Lan askoko ez, momentuko gauzia izaten zan, tortillia, ta arraiña eta txorizua, txorizua eibartarreri sei txakur haundi, ta elgoibartarreri errial bi.

38. Elgoibarko lantegiak; aitaren laneko anekdota

- **Erref:** EGB-013/061
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:52:36. **Bukatu:** 01:56:00

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Elgoibarko lantegi garrantzitsuenak aipatzen ditu. Aitaren laneko anekdota bat. Lanean ez zuten segurtasunik.

39. Elgoibarko lanbide ezberdinak

- **Erref:** EGB-013/064
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:58:25. **Bukatu:** 02:00:34

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Gizonak erosi zuen lehenengo irratia, baina ez zuen entzuteko astirik izaten. Telebista berandu izan zuten. Grabatzaileak, armaginak eta abar izendatzen ditu.</p>

40. Lehenengo gizarteak zuen eragina

- **Erref:** EGB-013/066
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 02:02:08. **Bukatu:** 02:02:38

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren aipamena egiten du. Lehenengo gizartearen eragina.

41. Errepublikara garaiko kontuak

- **Erref:** EGB-013/069
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 02:08:38. **Bukatu:** 02:09:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika garaian bozketan gertatutako pasadizoa.

42. Gerra Zibileko ibilerak

- **Erref:** EGB-013/070
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 02:09:30. **Bukatu:** 02:13:02

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra Zibila hasi zenekoa eta herriaren egoera. Etxea suntsitu zitzairen. Harrapatu egingo zituzten beldur, etxetik ihesi joan ziren beste etxe batera eta, ondoren, Mendaron anaiaren etxean egon ziren gerra amaitu arte.</p>

43. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** EGB-013/071
- **Iraupena:** 0:06:42. **Hasi:** 02:13:02. **Bukatu:** 02:19:44

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, anaiak San Migelera nola joan ziren azaltzen du eta haien pasadizoak kontatzen ditu. Senitartekoen kontuak.

44. Errazionamendu garaiko kontuak

- **Erref:** EGB-013/074
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 02:21:35. **Bukatu:** 02:22:20

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Errazionamendu garaiko kartilak eta jakiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com